

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren ordezkariak Nafarroan da

Barkos Lehendakariak harrera egin dio Jean-Jacques Lasserre, Pirinio Atlantikoetako Departamentuko lehendakaria, buru izan duen ordezkariari

Ostirala, 2018.eko apirilak 6

Pirinio Atlantikoetako (Akitania Berria) Kontseilu Nagusiaren ordezkariak instituzio-mailako bisita egiten ari da Nafarroan, Foru Komunitatearen errealitatea ez ezik, osasuna, toki-administrazioa edo turismoa bezalako eremuetan garatzen dituen politikak ere hobeto ezagutzeko.

Segizioaren buruan Pirinio Atlantikoetako

Departamentuko lehendakaria egon da, Jean-Jacques Lasserre, eta 40 bat pertonek osatu dute, horien artean Kontseiluaren hiru lehendakariordeak eta beste arduradun sektorialak, nahiz departamentu-organo horretako kargu hautetsiek. Tronu Aretoan egin die harrera Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria den Ana Ollok.

Barkosek hitz batzuk zuzendu dizkie Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren ordezkarietako kideei, eta, Foru Komunitateko funts juridiko eta instituzionaletarako hurbilketa laburra egin ondoren, aniztasuna eta dibertsitatea azpimarratu ditu; hau da, "Nafarroako bilakaera politikoa definitu duten aztarnak, legealdiz legealdi".

Era berean, Nafarroako Lehendakariak gobernu-ekintzaren zenbait ildo nagusi azaldu ditu, eta, ildo horretan, ondorengoak nabarmendu ditu, besteak beste: kontu publikoen saneamendua, aurrekontuaren eta finantzaren iraunkortasuna, murrizketak gastu sozial bihurtzea, gizarte-kohesioa eta osasunaren eta hezkuntzaren finkatzea eta hobekuntza.



Pirinio Atlantikoetako (Akitania Berria) Kontseilu Nagusiaren ordezkariak Barkos Lehendakariarekin eta Ollok kontseilariarekin batera.

Barkosek ondorengo adierazi du: “beste aukera batzuetara irekitzen ari gara, Atlantikora gehiago begiratzen, Europar Batasunean gure egoera indartze aldera”. Modu horretan, Akitania-Euskadi Nafarroa Euroeskualde berrira sartzea, Iruña-Francfort aireko lineak irekitzea, Espezializazio Adimentsuaren Estrategia edo Bruselan Nafarroako delegazioa berriz irekitzea aipatu ditu.

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren ordezkariak, Nafarroako Jauregian egon ondoren, ostiral eta larunbat honetan Iruñeko Udala, Nafarroako Museoa eta Oliteko Jauregia bisitatuko ditu, baita ere. Halaber, Nafarroako Ardoaren Ibilbideko esperientzia enoturistikoan izango dira, eta Lekunberriraino joango dira Plazaolaren geltokian Ederbidea proiektua ezagutzeko.

Horrez gain, egonaldian zehar, ordezkariaren beraren erabakiz, Nafarroako Gobernuak toki-mailan garatzen dituen politikak ezagutuko dituzte, bi hitzaldiren bitartez. Lehena, osasun-zerbitzuei buruzkoa, Santos Indurainek emango du, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideako Lehen Arretako zuzendari kudeatzaileak; bigarrena, berriz, oro har politika publikoei buruzkoa izango da, eta Izaskun Abrilek emango du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilariaren kabinete-buruak.

Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako frantses eskualdeko gobernuek elkarlana egiten dute mugaz gaindiko lankidetzako hainbat proiektu garatzen, bi erakundeek 2011n sinaturiko lankidetzak-akordioaren esparruan.



Jean-Jacques Lasserreri liburu bat eman dio Barkos Lehendakariak.